

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

5978

EBAZPENA, 2011ko azaroaren 17koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, laneko arriskuen prebentzioaren arloko ikerketa-proiektuetarako diru-laguntzak ematea ebazten duena.

1.– 2011ko urriaren 7an, honako ebazpen hau argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian: 2011ko irailaren 27ko Ebazpena, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, laneko arriskuen prebentzioaren arloko ikerketa-proiektuetarako diru-laguntzak arautzen dituen. Ebazpen hori zuzendu egin zen, hain justu ere Osalaneko zuzendari nagusiaren urriaren 18ko Ebazpenaz, zeina 2011ko urriaren 31ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu baitzen.

2.– Proiektuak 2011ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean garatu behar dira, eta diru-laguntzaren xede diren jarduerak 2011. urtean zehar gauzatu behar dira, eta 2011ko abenduaren 31 baino lehenago egon behar dira bukatuta.

3.– 2011ko urriaren 23an amaitu zen eskabideak aurkezteko epea; guztira, 23 eskabide aurkeztu ziren.

4.– Eskabideak Balorazio Batzordeak ebaluatu zituen, eta horretarako, deialdiaren oinarrietan ezarritako irizpideak eta ponderazioak erabili zituen. Eraitza, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiari jakinarazi zitzaion, ebatz zezan.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Laneko arriskuen prebentzioaren arloko ikerketa-proiektuetarako diru-laguntzak arautzen dituen Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2011ko irailaren 27ko Ebazpenaren 14.2 artikulua dioenez, eta Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen egitura eta funtzionamenduaren araudia onartu zuen uztailaren 30eko 191/2002 Dekretuan emandako eskumenekin bat etorriz, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak ebazpen bidez emango edo ukatuko ditu eskatutako diru-laguntzak.

Horregatik, Balorazio Batzordearen ebaluazioa ikusirik, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Diru-laguntza ematea Ebaluazio Batzordeak ikerketa-proiektutzat hartu eta egin duen ebaluazioan, 1. irizpidean –«Proiektuaren kalitate zientifikoa»– 10 puntutik gora jaso dituzten ikerketa-proiektuei. Onartutako proiektuak, diruz lagun daitekeen aurrekontuaren % 100eraino lagun daitezke. Onuradunak eta kalkulaturako zenbatekoa ebazpen honen I. eranskinean agertzen dira.

Bigarrena.— Laguntza ukatzea 1. irizpidean —«Proiektuaren kalitate zientifikoa»— gutxieneko 10 puntu lortu ez dituzten eskabideei. Ukatutako eskabideak eta haien zergatia ebazpen honen II. eranskinean daude.

Hirugarrena.— Ebazpen hau interesatuta dauden pertsona eta erakundeei jakinaraztea eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Laugarrena.— Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du eta bere aurka aukerako berraztertze errekurtoa aurkez dakioke Osalaneko zuzendari nagusiari hilabeteko epean, edo bestela, zuzenean Administrazioarekiko auzi-errekurtoa txandaz dagokion Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiaren aurrean, bi hilabeteko epean; bi kasuetan, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.3 eta 46.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Barakaldo, 2011ko azaroaren 17a.

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusia,
PILAR COLLANTES IBÁÑEZ.

I. ERANSKINA

ONURADUNAK ETA EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Zk.	Entitatea/Proiektua	Diru-laguntza
1	TeknoDidaktika S. Coop. – Animación didáctica: manejo seguro de maquinaria de almacén	50.000,00 €
2	APA Asociación para la Prevención de Accidentes – Análisis de los niveles curriculares de formación en PRL: Propuesta de actuación	40.800,00 €
3	APA Asociación para la Prevención de Accidentes – El absentismo y sus costes: un enfoque global en la realidad de la CAPV	43.350,00 €
4	APA Asociación para la Prevención de Accidentes – Condiciones de trabajo y su repercusión sobre la satisfacción laboral	42.300,00 €
6	Fundación de Investigación de la Máquina Herramienta (INVEMA) – Guía de diseño ergonómico para la máquina herramienta	30.000,00 €
10	Federación Vizcaína de Empresas del Metal – Diseño y creación de una herramienta para la recopilación de buenas prácticas que permitan la mejora de la información y comunicación en materia de prevención de riesgos laborales trabajadores de las Pymes vascas del sector metal	20.000,00 €
12	Agrupación de Asociaciones de Comerciantes de Gipuzkoa – Dendartean – Análisis diagnóstico de situación de las empresas del sector comercio con respecto a la adopción de medidas preventivas para trabajadoras embarazadas o en periodo de lactancia	15.000,00 €
14	UPV/EHU – Acoso laboral por razón de género en la Administración Pública, especial consideración a la Universidad del País Vasco y su protocolo	10.000,00 €
15	Industria de Turbo Propulsores, S.A. (ITP) – Cultura de Prevención, más allá de la prevención	40.000,00 €
16	Ayuntamiento de Ermua – Integración de la PRL en la metodología didáctica para el manejo de las PEMP (Plataformas elevadoras móviles del Ayuntamiento de Ermua)	40.000,00 €
17	Ayuntamiento de Ermua – Proyecto «SSS» Proyecto de Símbolos, Signos y Señales para la Prevención de Riesgos Laborales en maquinaria de movimiento de tierras	50.000,00 €
18	Fundación Tecnalia Resarch & Innovation – Desarrollo de un Manual Práctico para la integración en la Pyme de la gestión de riesgos derivados de nanotecnología y de los nanomateriales (Nano-Book)	35.000,00 €
19	CEINPRO, S.L. – Causas de accidentes de tráfico en el ámbito laboral: medidas preventivas	30.000,00 €
20	Unión General de Trabajadores de Euskadi (UGT) – Estudio sobre la participación de los trabajadores en la investigación de accidentes de trabajo en el ámbito laboral de Euskadi	15.000,00 €
21	SEA Empresarios Alaveses - Prevelan Plana	130.000,00 €
23	Fundación Onkologikoa Fundazioa – Vigilancia de la Salud en los trabajadores del País Vasco expuestos a amianto en el pasado	60.000,00 €

II. ERANSKINA

UKATUTAKO ESKABIDEAK

Zk.	Entitatea/Proiektua	Arrazoia
5	Intertek Asociación BTC – Seguridad, Higiene y salud Laboral y su impacto para las mujeres en actividades de inspección y análisis de productos combustibles en el Puerto de Bilbao.	1
7	Asociación Profesional de Orientadoras/es Sociolaborales (AOSLAN-Gizalan) - Estrés, distrés y Burnout en Orientación Sociolaboral.	1
8	Belako Lanak, S.L. – Estudio de la minimización del impacto medioambiental sonoro en las obras de urbanización.	1
9	Asociación Provincial de Autoescuelas de Gipuzkoa – La incidencia de los factores de riesgos relacionados con la seguridad vial para trabajadores del sector de autoescuelas.	1
11	Asociación Profesional Guipuzcoana de Tintorerías - Análisis diagnóstico de situación riesgos emergentes en tintorerías de Gipuzkoa.	1
13	Asociación Profesional de Peluquerías de Señoras de Gipuzkoa – Estudio de la incidencia de la carga ergonómica en muñecas y antebrazos de trabajadores de peluquería.	1
22	Federación Vizcaína de Empresas del Metal – Investigación para la elaboración de sistemas de detección y gestión de los factores psicosociales que inciden en el absentismo.	1

Arrazoen deskribapena:

(1) «Proiektuaren kalitate zientifikoa» irizpidearen balorazioan proiektuak ez ditu lortu gutxieneko 10 puntu.